## Zuloaga

Iraganak iragan*, hamabost egun luze iraun ondoren amaitu berri dan erakusketan, Zuloaga ospetsua zanaren hogeitairu lan (kuadru eta dibuju) ikusteko eukera izan dogu.

Mota eta sasoi guztietako kuadruak azaldu dira. Txikiak eta handiak, ezagunak eta ezezagunak, baliodunak eta baliogabeak (Zuloagarenak ez balira), gaztetakoak eta zahartzarokoak, atmosferadunak eta atmosferabakoak, kontrastezko bereziak eta erditintazko ez horren famatuak. Berba batez, Zuloagaren edozenbat* kuadru berezi, aparteko, ospetsu, jator eta karakteristiko falta bazan ere (Zuloagak 600 bat kuadru egin ei zituan), ikusi ahal izan ditugunei aski* ritxoegu, Zuloagaren era eta tankeren* berri jakiteko ezezik, ba bere joritasunaren* barruan izan zituan aldaketa, eboluzio eta azk jokerak ezagutzeko ere. Horrez gainera, berak ikusi eban' Espai. harrigarriaren kuadru errepresentatiboren bat edo beste ere ber ikusi ahal izan ditugu.

Hona hemen agertu diren kuadru guztien zerrenda. Erretratu: **Ama, Etxeguren alarguna, Lolita Penaud, Plazido Zuloaga, Jose Or ta, Oruetaren emaztea, Basilio Igeldoko apaiza, Falla, Azorin, Ang tias andereñoa, La Oterito, Jose Orueta kontrabajoa jotzen, Autor tratua.** Paisajeak: **Pancorbo, Motriku, Sena ibaia.** Beste zenbait g **Mantilladun andrea, Hiru dibuju margotuak, Eztisaltzailea, Juan bastian Elkano, Frailea, Merienda.**

## Laugarren monografia

Lehenagokoan esaten genduan, **Eibarren hiru** monografia d gula. Honeexek: Gregorio Mujikarena, Pedro Zelaiarena eta San M tinen zuzendaritzaren pean laster irteteko* dana. Esan bagendu esan genduan. Oker gengozen oraingoan ere. Gazte ezjakinen c rra. Hala ere, okerrak ez gaitu isilduko, irakatsi baino.

Gutariko bat Juan San Martinengana joana zan bisitatxo bat tera, etxe horretan zer ikasi beti dago ta; eta era honetan itau eutsan Juanitok:

—Hik idatzi ahal dok, Eibarren hiru monografia baino ez tugula?

**—Zer, ba? Orain be izan joagu hanka-sartzeren bat ala?**

Erantzuteke*, liburu bat atera eban. Hona hemen azalean ir na*: «EIBAR. Monografía Descriptiva de esta Noble y Leal Villa puzcoana. Pedro Sarasketa. Año 1909. Imp. de P. Orue. Eibar».

Hain zuzen, 1908. urtean, Uztaileko* Euskal Jaietan, biga saria irabazi eban' liburua. Lehenengoa goratxoago aipatutako gorio Mujikarenak irabazi eban. Sasoi haretan, hamaikatxo eta linboan ginen; hala ere, ba ziren Pedro Sarasketa ainako eta O ren mailako inprentak. Horrelakorik ba ote da gaur egun Eibarr

## Kafka

Kafka irakurtzea gauza bat da, eta Kafkaren lanak euskeraz kurtzea ba dira bi. «Lur» editorialak argitaratu berri dauan «Itx Aldaketa» irakurri dogu. Aspalditxo ginen Kafka ezagutzeko; i ekin ere ekin izan deutsagu bere obraren bat irakurtzeari, g amaitzeke*, lagatzeko.

Erabat* alegratzen gara, Kafka euskeraz ezagutu dogulako. gutu dogu; baina ez dakigu Kafkarekin bat gatozen ala ez, Kaf ren hariari jarraitzen deutsagun ala ez. Hala ere, ez gara Ka ren bildur. Berriro irakurri beharko dogu; baina oraingoan egu ametsik ez daigun egin.

**ALBISTARIAK**